

opusdei.org

Pirinioetako Unibertsitate Jardunaldiak 2017

Berrehun ikasle eta irakasle
bildu ditu

2017 Abu 7

Piriniotako Unibertsitate
Jardunaldien 34. edizioak (JUP)
berrehun ikasle eta irakasle gora
behera bildu ditu Barbastron, bai
Espainiatik bai beste zenbait
naziotatik etorriak. Deialdi
akademiko hau, Nafarroako
Unibertsitateko hiru ikastetxe

nagusiko ikasleek antolatuta (Aiete, Belagua eta Mendaur), gain honen inguruan garatuko da: ‘Mugitzen ari den mundu bat’

JUP Barbastron aurrera eramane da uztailko 25etik 30era, eta Torreciudad, Alquezar, Ainsa eta Graus-en ere egin dira zenbait saio.

Gaztelaniaz eta ingelesez mintegi batzuk emango dira gai hauen inguruan; transhumanismo deitutako mugimenduan egindako aurrerapen zientifikoak gizakiaren bizitza luzatzearen, egiaren-ondokoa (posverdad) informazio politikoan, Islam mundu eta Mendebalde arteko harremanak, filosofia eta ab.

Hizlarien artean, Rafael Larreina, Euskal Herriko politikoa, politika komunikazio aholkularia; Javier Marrodán, kazetari eta Nafarroako Unibertsitateko irakaslea, “Relatos de plomo” liburuaren autorea, Javier

Novo, genetista, Javier Echevarria, Ricardo Rovira eta Ricardo Calleja filosofoak.

26an, asteazkenez, lehenengo hizketaldia izan da Ainsan, gezurraren erabilerari buruz politikan; ostegunean Grausen, musika eta dantza ikuskizun bat eskainiko du Durme konpainiak; eta ostiralean poesia errezitaldi bat Sergio Navarroren kargu, Adonais 2016 sariduna, Alquezaren.

Ikasleen ehuneko 40a Nafarroako Unibertsitatik dator, baina 1983 sortutako jardunaldi hauek nazioarteko bihurtu dira eta ikasle europar eta latinoamerikarrak era badatoz.

Jardunaldien sustatzaileek azpimarratzen dute Somontano, Sobrarbe eta Ribagorzak alde garrantzitsu bat erakartzen dietela Jardunaldiei, hango lasaitasunak eta xarmak jardunaldien garapenari

laguntzen baitiote eta halako
ezaugarriko topaketak behar izaten
duten hausnarketa errazten baitute.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/pirinioetako-unibertsitate-
jardunaldiak-2017/](https://opusdei.org/eu-es/article/pirinioetako-unibertsitate-jardunaldiak-2017/) (2026 Mar 10)